

# 1 - Ama Maria

*Populaire - Arrang. : Léon ALFARO*

*Soliste : Jean-Bernard MAITIA*

Ama Maria gure izarra,  
Gaixo guzien indarra,  
Jesusen ama, gure laguntza,  
Ona da zure bihotza.

Urrikal zaitte gure beharrez  
Orroit zaitte gure haurrez

Dezaten beti beren bizia  
Ereman garbi garbia

Ama Maria !

*Chant à la Vierge Marie, qu'elle reste  
notre soutien.*

## 2 - Zatoz Jaungoikoa

*Paroles : Marcel ETXHEHANDY*

*Musique : S. SALABERRI*

*Soliste : Josep LAMBERT*

Zatoz Jaungoiko maitea  
Itzali gure egarria  
Ase gure gosea  
Zu zera nere iturria

Basauntzak ur biziaz egarri  
Ni zutaz egarriago

Zure gatik bihotzez  
Gure bihotza ordainez

*Viens Seigneur apaiser notre faim et notre soif.*

# 3 - Egon Atzarririk

Paroles : Marcel ETXEHANDY  
Musique : Juan URTEAGA

Jauna, ene bila etorriko zarenean  
Zurekin har nezazu,  
Otoi, otoi, zorionean.

Egon atzarririk otoitzean  
Gauaz etorriko nitzaizue  
Ohoina bezala, uste gabean

Egon atzarririk otoitzean  
Ez erortzeko tentaldian  
Burraino atxikiko duena  
Hura salbatuko da !

*Restez éveillés, je viendrai comme un voleur pour vous chercher.*



## 4 - Aiñara Xuri Beltxa

*Musique : Léon ALFARO.*

*Paroles : Frantxoa CASET*

Orai badu zonbait urte  
Primadera goizño batez  
Bi aiñara hasi zitzaitan  
Leku goxoño bat hautatzen  
Etxearen hegatz azpian  
Belhar eta buztin idorrez  
Etxola bat zuten moldatu  
Hiru egun labor emanez.  
Refrain : Aiñara xuri beltxa,  
Etxeko xoria  
Lagunt gure gazteak  
Egiten beren egoitza !

Aiñara xuri beltxa,  
Etxeko xoria  
Lagunt gure gazteak  
Eiten beren egoitza !

Segur ikusi behar zen  
Haien harat ta hunatak  
Mosko muturrean hartuz  
Etxearen lantzeko pastak  
Zoin amiagarri zautan  
Haien borondate haundia  
Bi xoriek egiteko  
Holako lan ikusgarria!

Garaziko gazteria  
Aiñara horiek iduri  
Amodiorekin dira  
Lotzen beren etxaldeari  
Ordoki eta mendietan  
Bihotz haundi batekilan  
Alta ez dute ez beti  
Kantua bihotz ezpainetan !

*Vaillantes hirondelles, montrez  
comment et aidez nos jeunes à bâtir  
leur foyer à l'image de votre nid.*

# 5 - Neguko Txillinak

*Mélodie Populaire Russe*  
Arrang. : Léon ALFARO

Duo : D. ETCHEGOIN - B. DAGUERRE  
Solo : A. UHALT

Mendia beteta elurrez  
Begitartea negarrez  
Lan eginaz iriki dut  
Bainan atsegin batere ez

Oihanean den ederra  
Zuharitz gazte lerdena  
Zu zera mundu onetan  
Nik maitatzen zaitudana

Abenduko gau luzetan  
Ardura horma bordetan  
Mutiko gazte arinak  
Ibiltzen neskatiletan !

*Les cloches de l'hiver*  
(chant populaire russe)



# 6 - YRU ERREGE

*Populaire*

*Harmonisation : Jesus GURIDI*

Yru errege datoz  
Orientetikan Belenera  
Aurretik dakarrela  
Izar argi eder bat  
Bidea erakustera

*Le long chemin des Rois Mages  
guidés par l'étoile du berger*

# 7 - Kantu Egin

*Musique : Léon ALFARO*

*Paroles : Peio ETCHEGOIN*

Haur ttipiaren irria  
Amarentzat zer loria  
Aita ere xoratua  
Haurra kantuz lokartu da  
Haur ttipia haunditu da  
Bere baitaz airatu da  
Kantuz derama bizia  
Gazte guzien leloa !

Maitasunaren kantua  
Espos berrien asmoa  
Bizi berri bat sortzea  
Aita aitatxi deitzea  
Aita aitatxi dela ta  
Zu ere oraitik aita  
Orroit aitamek errana  
Segi bestek hasi lana.

*Refrain :*

Kantu egin, kantu ikas  
Kantu eman kantu solas  
Kantu asko kantu eskas  
Zu gurekin nola ez has ?

Kanta kanta abestia  
Arbasoek moldatua  
Ohiduren erorpena  
Aitonen erran zaharra  
Mundu huntako bizia  
Kantu baten errepika  
Soinu eder indartsua  
Biziaren parekoa !

*Apprenons à chanter,  
chantons, des grands parents  
aux petits enfants.*

# 8 - GAUA « La Nuit »

*Auteur : Jean-Philippe RAMEAU*

Gaua maite zaitut bihotzez  
Biltzen gaitutzunian  
Hotz eta itzalez  
Zeruko atsegina  
Dakartzu gu pozez  
Zeruko atsegina  
Dakartzu gu pozez

Jainko batek zure azpian  
Jartzen gaitu danak  
zure mendian.  
Jaun et' artzaiak emanak  
Estalki urdin bat  
Izarrez betia  
Estalki urdin bat  
Izarrez betia



*La Nuit, adaptation du chant  
de Jean philippe **Rameau**.*

## 9 - Souliko

*Musique : D. BORNIAANSKI.*

*Arrang. : Léon ALFARO*

*Chant Populaire de Géorgie*

Goiz abua niur nirra  
Ama sabia ser dara  
Dirasi su a-aï da-aï luvé  
Teti mirraïa maïo

Di si si sa massassé  
Ni sen si ïa samaïo  
Noa ditu kapisusso  
Niké ïamaïa maïo

*A. Tsereteli*

*Chant populaire de Géorgie. Petit oiseau dit moi où se trouve la tombe de mon aimée.*

# 10 - Gogoan

*Musique : Léon ALFARO*

*Paroles : Jean-Léon PEBET*

*Solistes : Frantxo CASSET - Parlé : J. Léon PEBET*

Sobera gazterik joanik  
Gu utzirikan bakarrik  
Ez ginuen nihun minik  
Gure bihotzean baizik.  
Herria zuten gogoan  
Harentzat ari lanean  
Atxikimendu berean  
Zaudela familian.

## *Refrain*

Gogoan atxik ditzagun  
Gurekin zirenak  
Hemendik joanikan ere  
Gu baitan izan ditela .  
Hain luzaz elgarrekilan  
Ibilik kantuan  
Betiko dirade biziko  
Gu denen bihotzean!

Zer dugu holako hutsa  
Zure kantua hotsa  
Bainan ez gaitela lotsa  
Segituz gure urratsa.  
Goxoa orroitzapena  
Bai ezin ahantzizkoa  
Kiretsa egunekoa  
Zu gabeko geroa.



*A ceux disparus trop jeunes, trop tôt, qu'ils demeurent à jamais vivants dans nos coeurs.*

# 11 - Biba Rioja

*Musique : J.M. IPARRAGUIRRE*

*Harmonisation : Jacques BALLUE*

Biba, Biba Rioja !

Biba Rioja, biba Nafarra  
Haren famaren izarra !  
Hemen guziak aneiak gira  
Hustu dezagun pitxarra  
Glu, Glu, Glu . . .

Biba Burgoña, biba Xanpaña !  
Maite dut zuen tisana.  
Nahiz orotan ez den berdina  
Mahatsak bethi jus ona !...  
Glu, Glu, Glu . . .

Biba herriko lur aberatsak,  
Irulegiko mahatsak !  
Heien arnotik brauki edazak  
Bai joanen zaizkik ez ontsak !...  
Glu, Glu, Glu . . .  
Biba Rioja !

*Ôde au bon vin de la Rioja, de Navarre,  
de Bourgogne, de Champagne et bien sûr d'Irouleguy.*

# 12 - Zortziko de San Juan

*Musique : E. MOCOROA*

*Solistes : D. ETCHEGOIN - F. CASET*

*Duo : D. ETCHEGOIN - M. HARCAUT*

Agur egun zoragarria  
Poztu dezu herri guztia  
Jatorrizko Tolosarrak  
Esnatzen ditun sentia  
Agur egun zoragarria  
Poztu dezu herri guztia

Ezkilen soinu entzungarriak  
Ta eliz atariko su garrak  
Sendatu dituzte gaixorik zeuden  
Neska koxkor eta mutillak  
Agur egun zoragarria  
Poztu dezu herri guztia

Albo herritik dator jendea  
Onratzera San Juan gurea  
Eta zail dalako nun nahi aurkitzen  
Festa leku bat hobea  
Agur egun zoragarria  
Poztu dezu herri guztia

Patroi gurearen ikasbidea  
Beti dezagun gogoan  
Noizbait kantatzen gerta gaitezen  
Denok beraren ondoan.  
Agur egun zoragarria  
Poztu dezu herri guztia

*La ville de Tolosa fête St Jean son patron.*

# 13 - Pilotari *Populaire - Michel ETCHEVERRY*

Pilotaria xuritan bezti jo eta jo beti azkar ari da  
Pilotazaleak airos joaiten dira beti gure plaza berrira  
Pilota bezain joko beroak, ederragoak nun ote dira ?  
Zer plazera egoitea gure eskual pilotarieri begira !

*Refrain :*

Segi gazteak, jo pilota, trinket' edo plaza laxotan,  
Zueri begira gaude beti haundizki pilorian esku zartak !

Eskerrak gure burrasoeri bai eta eskualdun arbasoeri  
Pilota eskual joko ederra utzirik gogo bihotz altxagarri  
Eskual Herriak eta eskuarak pilota daukate beren lokarri  
Eskualdunak bere nortasuna batek aldi bat zor du pilotari

*Refrain :*

Segi gazteak, jo pilota, trinket' edo plaza laxotan,  
Zueri begira gaude beti haundizki pilorian esku zartak !

Zer laike Eskual Herria ez balu trinketa eta plaza laxorik  
Zer laike Eskual Herria ez balu hainbeste xapeldun famaturik

*Refrain :*

Mundu guzian ez da deusik, bai pilota bezain ederrik,  
Ez da kirolarik eskualdunen pilota baino ederragorik !

( Bai ! Bai ! )

*Tout de blanc vêtu les Pilotaris font vivre les canchas  
du Pays Basque.*

# 14 - Elgarrekin

*Musique : Léon ALFARO*

*Paroles : Jean-Léon PEBET*

*1<sup>er</sup> refrain :*

Ator ator Eskualdunak, ator ator gu ganat,  
Gurekilan abesterat, gure herri maitea

Elgarrekin ahots batez zertarik gauden minez  
Arizan gabe nigarrez kanta dezagun erranez:  
Ez garela ez ahalge batzutan makur kantaturik ere  
Ez baigira iñorekin haserre, guzientzat baita hobe.

Ator ator euskaldunak, ator ator gu ganat  
Gurekilan abesterat, gure herri maitea

Entzun araziz orotan mendi bai erreketan  
Gure kantuaren hotsa maltzurkeriaren lotsa  
Gizon guziek baitute askotan default bezain bat bertute  
Itzal gabekorik badea ote, sobera eder litake !

*Dernier refrain :*

Ator ator Garaztarrak, ator ator gu ganat  
Gurekilan abesterat, ator ator Nekez Ari talderat

*Nekez Ari invite tous ceux qui veulent chanter et  
festoyer à se joindre à eux.*

# 15 - BAIGORRIKO

## MENDI BIXKARRETAN

Paroles : Pantxo CASSET  
Musique : Léon ALFARO

Arno zaharra guk maite  
Haren indarra dut kalte  
Bai xuri ala gorria  
Haientzat dut flakezia.  
Gizonen ahulezia  
Edanez egun guzia  
Gero kasu anderia  
Haren kolera haundia !  
Bai, bai arnoa, bai, bai, Baigorrikoa !

*refrain :*

Baigorriko mendi bizkarretan  
Mahatsa da hontua  
Bihar iguzkia jeikitzen  
Kantu irri mahastietan  
Baigorriko mendi bizkarretan  
Mahatsa da hontua  
Bihar iguzkia jeikitzen  
Kantu irrintzi mahastietan

Biziko pena guziak  
Ithotzen arno gorriak  
Goizeko arno xuriak  
Xukatzen begi bustiak  
Kantazak eskual semea  
Arnoaren boterea  
Hire lurraren hazia  
Jinkoak eman bizia!  
Bai, bai arnoa, bai, bai, xuri gorria !

*Sur les collines de Baigorry le raisin est mûr allons le cueillir.*



# 16 - OI GAXUXA

Musique : Léon ALFARO  
Paroles : Jean-Léon PEBET.

## FANDANGO

*Refrain :*

Oi Gaxuxa zoin loriosa  
Zu nere gazte amorosa  
Oi Gaxuxa zoin graziosa  
Mutil guzien amentsa

Goizetan mezatik landa  
Ezkilek emanikan azken danda  
Izanike plaza malda  
Herriko gazteria han da

Eskualdun gaztek baitute fama  
Maite izaitea pesta  
Kantu pilota bai eta dantza  
Ez zaie haundituren gantza

Zenbat mutil zuri beha  
Egoiten ziren berdin gau guzia  
Aise heien xoratzia  
Zuen zure begi eztiak

Bainan alderat utzirik oro  
Biak ginen abiatzen  
Hea nun emaiten ahal ginuen  
Jauzi luzè eta fandango !

## ARIN ARIN

*Refrain :*

Kantari oihanean xoria  
Dantzari plazan gazteria  
Goizetan eder da iduzkia  
Guk hemen ardura euria !

Kantari xoria hari beha gatia  
Egin dezakela bazkari bat ona  
Neskatxa dantzari ta gatia iduri  
Mutikoak daude begiak argi !

Trixterik dagona ez dadin egon hola  
Trixteziak ez baitu deusik apaintzen.  
Iribar batekin jin dadila dantzarat  
Lagunekin baita alegeratzen !

*Combien de jeunes gens n'ont ils pas soupiré après toi ?  
Mais les dédaignant tous nous allions danser sauts basques et fandangos.*

